

getxogazte

Algorta

plant

KAIXO!

Gaztea bazara, hemen aurki dezakezu gazte-elkarteei buruzko Getxoko informazio guztia, bai eta zure interesekoak izan daitezkeen zerbitzu publikoei buruzko informazioa ere.

Zuretzat interesgarria eta erabilgarria izatea espero dugu.

Dokumentu honek jaso beharko lukeen zerbait dagoela ikusten baduzu, jar zaitez harremanetan helbide elektronikoen bidez: gaztebulegoa@getxo.eus

Azala: "Algortako mamia" marrazkia,
2023ko lehiaketaren irabazlea.

Egilea: Miriam Villacorta Minguez

HAUR ETA GAZTEEN ELKARTEEN ZERREDA

PERTSONALDE

Esku-hartze komunitarioko proiektuak, egoera ahulean dauden migratutako familiak eta pertsonak hartzeko eta bertan sartzeko. Migratuak eta bertakoak sentsibilizatzeko eta elkartzeko jarduerak.

T. 623 067 763 www.pertsonalde.org pertsonalde@pertsonalde.org

AISIBIZIA

Hautzaroa, Nerabetasuna, Gazteria eta Familia.

T. 688 881 346 <https://aisibizia.weebly.com/> aisibizia@gmail.com

HASZTEN

Kirol egokitua eta inklusiboa 6 urtetik aurrera.

T. 699 609 588 <https://www.haszten.org/> info@haszten.org

ZIZTU BIZIAN ESKAUT TALDEA

Aisialdiko eskaut taldea: 8 urtetik 18 urtera.

T. 666 408 099 / 688 692 531 Instagram: ziztubizian koordinazioa.ziztubizian@eskaut.org

ESKUBELTZ ESKAUT TALDEA

8-18 urte bitarteko aisialdia.

T. 678 515 033 <https://www.eskubeltz.eskaut.org/> eskubeltz@eskaut.org

CRUZ ROJA JUVENTUD URIBE KOSTA

6 urtetik 17 urtera

T. 617 318 041 <https://www.cruzrojabizkaia.org/es/> juventuduribe@cruzroja.es

FUNDACIÓN FIDIAS

6 eta 18 urte bitarteko adingabeei laguntzea • Zaur-garritasun egoeran dauden haurrak eta nerabeak.

T. 682 80 50 52 <https://fundacionfidias.org/> fidias@fundacionfidias.org

AMESTEN

Dibertsitate funtzionalen bat (desgaitasuna) duten pertsonak komunitatean sartzea.

T. 688 754 749 www.amesten.org info@amesten.org





BIZARRA LEPOAN EUSKARA ELKARTEA

Euskara elkarteak haur eta nerabeentzako aisialdirako gune euskaldunari heltzen dio: udalekuak udako, neguko eta udaberriko oporretan eta askoz gehiago.

T. 944 916 087 www.bizarralepoan.eus info@bizarralepoan.eus

SORTARAZI

18 urtetik gorako gazte etorkinei laguntzeko programa.

T. 946 620 192 / 618 266 314 www.sortarazi.org ibilimaakom@sortarazi.org

EUSKARABENTURA

EuskarAbentura uztailen Euskal Herria oinez zeharkatzen duen espedizioa da. Parte hartzaileak euskal probintzietako gazteak eta 15-16-17 urteko diasporakoak dira.

Doako bidaia da eta beharrezkoa da parte hartzeko proiektu bat aurkeztea. Izena emateko epea abendutik martxora bitartean izaten da.

T. 688 844 257 www.euskarabentura.eus info@euskarabentura.eus

AMEKADI

Amekadi erakundeak bizikidetza hobetzeko talde-prozesuak errazten ditu, bai gazteentzat, bai helduentzat.

T. 659 759 989 <https://amekadi.org/> amekadi@amekadi.org

KIMERA

Gehienbat mahai-jokoetan eta rol-jokoetan interesa duten gazteei zuzendua, baina nerabeak eta helduak ere onartzen ditu bere jardueretan.

asociacionkimera.wordpress.com quimeraasociacion@gmail.com

GALEA

Aisialdiko jarduerak 9-17 urteko gazteentzat.

T. 944 630 993 www.asociaciongalea.com infoasociaciongalea@gmail.com

CLUB IBAIONDO

Eskola indartzeko jarduerak, hizkuntzak, aisialdiko eta denbora libreko jarduerak, Aste Santuko eta udako kanpalekuak, boluntariora-jarduerak... batxilergoko eta unibertsitateko gazteentzat.

T. 944 630 980 / 659 914 327 www.ibaiondo.org/ ibaiondo@ibaiondo.org

GAZTETASUNA

Aisialdia

T. 634 507 153 gaztetasuna.wordpress.com gaztetasuna@gmail.com

NEGUBIDE

Aisialdiko jardueren familia-elkartea 10 eta 18 urte bitarteko neska-mutilentzat.

T. 944 914 130 www.negubide.com negubide@negubide.com

ENTREAMIGOS – LAGUN ARTEAN

Guatemalan garapenerako lankidetzak-ekintzak, gizarte-eraldaketarako hezkuntza, komunikazioa eta sentsibilizazioa lantzen dituen erakundea.

T. 633 41 29 05 / 946 088 518 www.lagungt.org/ educacion@lagungt.org
comunicacion@lagungt.org

SAN NIKOLAS ZABALIK

ABEGI ENEA proiektua (gazte migratzaileen harrera-etxea).
IkHazi proiektua (gaztelera eskolak gazte migratzaileentzat.)

T. 635 75 84 46 sannikolaszabalik.wordpress.com idazkaritza@sannikolaszabalik.org

ZABALKETA

Sentsibilizazio-lanetan, gizarte-ekintzako programetan, gizarte-eraldaketarako hezkuntzan eta garapenerako lankidetzan dihardu.

T. 94 464 36 94 / 688 874 963 www.zabalketa.org zabalketa@zabalketa.org

SAREKIDE

Boluntariotza eraldatzailea sustatzen duten erakundeen eta pertsonen sarea da. Erakundeen jarduera babestu, aitortu eta zabaltzen du, Getxoko udalerrian elkartzeko guneak eta parte hartzeko bideak eskainiz.

T. 946 122 845 www.sarekidegetxo.org info@sarekidegetxo.org

ECIVIS

Herritarren parte-hartzea bultzatzea, arreta jarriz hezkuntzan, iraunkortasunean eta Europako herritartasunean.

T. 636 644 671 www.ecivis.eus info@ecivis.eus

FUNDACIÓN INTEGRANDO

Laneratzeko eta gizarteratzeko laguntza indibidualizatua.

T. 688 874 451 / 944 914 375 www.fundacionintegrando.com info@fundacionintegrando.com

ASPERTXU

TEA/Asperger: 4 urtetik aurrera

T. 747 427 217 / 944 810 354 www.aspertz.com info@aspertz.com

GAZTERIA ZERBITZUA

Udal Gazteria Zerbitzua zerbitzu irekia da, hurbila eta inklusiboa, eta gazteei eskaintzen die arreta (30 urte arte).

Zerbitzuak lau jarduera-ildo lantzen ditu:

- **Gazte-informazioa** Gaztebulegoaren bidez egiten da, baita ikastetxeetan, kiroldegietan, kultur-etxeetan dauden informazio-guneen bidez ere, edo informazio-zerbitzu selektiboaren bitartez.
- **Aisialdiko eta denbora libreko eskaintza**, hala nola ikastaroak eta tailerrak, hiri-koloniak eta beste ekimen interesgarri batzuk. Gazteak bezalako ekipamenduak jartzen ditu udalerriko gazteen eskura.
- **Gazteen parte-hartzea eta sormen-gaitasuna sustatzea**, gazte-erakundeetarako dirulaguntzen bidez, Wanted proiektuaren bidez...
- **Informazioa eta aholkularitza gazteen emantzipaziorako jarduerari buruz.**

Aholkularitza espezializatuak daude, gazteei eta haiekin lan egiten duten eragileei soilik zuzenduak, eremu horietan esku-hartze profesionalagoa eskatzen duten zalantza eta gaietan laguntzeko (aholkularitza psikologikoa, gizarte- eta lan-arloko aholkularitza eta aholkularitza juridikoa).

Non dago?
Urgull kalea 4 - 2º

Informazio gehiago:
944 660 353 / 688 880 985
gazteria@getxo.eus

Web:
www.getxo.eus/es/cohesion-social/home-juventud

EGIZU

Egizuren helburua Getxoko euskaldunen komunitatea indartzea eta zabaltzea da, euskararen erabilera areagotzeko; Getxoko Euskaltegiak, Berbalagunak (16 urtetik gorako euskaldunak), Gurasolagunak, Sendi Proiektua; 0-12 urte bitarteko haur eta familientzat, irakurle eta idazleen klubak, yoga taldea, egurra eta bizikleta...

T. 619 935 541 www.egizu.eus egizugetxo@gmail.com

PAKEA BELA ESKOLA

Bela-kirola lantzen dugu osasuna, kirola, aisia eta denbora librean sustatuz. Campusa Aste Santuan eta udan. (8 eta 18 urte bitarteko gazteentzat).

T. 944 916 632 www.pakeagetxobelaeskola.com info@pakea.info

GAZTEBULEGOA (Gazte Informazio Bulegoa)

14-30 urte bitarteko gazteak

Zerbitzuak honako hauek eskaintzen dizkizu: izena ematea doako ikastaro eta tailerretan, informazioa enplegu-eskaintzei, bekei, dirulaguntzei, ikaskei... buruz. Aholkularitza aterpekeide-txartela, ikasle-txartela... lortzeko.

ORDUTEGIA:

Goizez: 10:00-14:00 Astelehenetatik ostiralera.
Arratsaldez: 17:00-19:00 Astearte eta ostegunetan.

KONTAKTUA:

Gazte Informazio Bulegoa
gaztebulegoa@getxo.eus
944 66 03 53 / 688 88 09 85
Torrene, 3 (Algorta)

Informazioa gazteentzat, non?
Gazte Informazio Bulegoan
Gazteak gehigarria hileko lehen ostiraletan ateratzen da kalera GetxoBerrirekin batera.

Zure telefono mugikorrean, banaketako Whatsapp taldean, esaguzu eta sartuko zaitugu.
<https://www.getxo.eus/es/cohesion-social/home-juventud>
Sare sozialak: Facebook, Twitter eta Instagram @Getxogazte

PROGRAMAK:

- 1. INFOPOSTA:** Getxoko gazteriarekin lotutako informazio guztia.
 - 2. JOLASTOKI:** Ikastaroak eta tailerrak. Proposamen edo ideien bat baduzu, etorri eta kontatu.
 - 3. HEGAN:** Prestakuntzak, enplegua, etxebizitza, ikaskuntza. Prestatu gure jardueren bidez. Emantzipatzeko gogoia baduzu, baina ez badakizu nola, zatoz eta lagunduko dizugu.
 - 4. GERTU:** Getxoko gazteei zuzendutako elkarte bat sortu nahi baduzu, laguntza eta aholkuak ematen dizkizugu. Dagoeneko elkarteren bat baduzu, dirulaguntzei buruzko informazioa eta orientabideak ematen dizkizugu. Gazteei zuzendutako zuen jardueren berri ematen dugu.
- Getxoko gazte-eremuko erakundeei buruzko informazioa lortu nahi baduzu, edo boluntariora egin nahi baduzu, hemen gaude.



11 - 17 urte bitarteko gazteak

Espazio bat lagunekin ondo pasatzeko, jendea ezagutzeko, hainbat jarduera egiteko eta zure ideiak martxan jartzeko.

Zenbait gune ditugu:

Topagunea: bertan hitz egiten, irakurtzen edo Play-ra edo Wii-ra jolasten egon ahal zara.

Tailerrak: mota guztietako tailerrak egiteko gela.

Ordenagailuak eta mahai-jokoak Ping-pong, futbolina eta filmak ikusteko proiektagailua dituen gela.

Irteerak eta txangoak ere badaude.

ORDUTEGIA:

17:00-20:00 astearte, asteazken, ostegun eta igandeetan.

17:00-21:00 ostiral eta larunbatetan.

Urgull kalea 4, 3. solairua
688 840 35

gauegungaztelekua@getxo.eus
Instagram: @getxo_gauegun

GureGune
gaztelekua



11 - 17 urte
bitarteko gazteak

Espazio bat lagunekin ondo pasatzeko, jendea ezagutzeko, hainbat jarduera egiteko eta zure ideiak martxan jartzeko.

Hainbat gune ditugu:

Topagunea: bertan hitz egiten, irakurtzen edo Play-ra edo Wii-ra jolasten egon ahal zara.

Ordenagailuak eta mahai-jokoak
Ping-pong, futbolina eta filmak ikusteko proiektagailua dituen gela.

Sukaldea, tailerrak egiteko eta praktikatzeko.

Irteerak eta txangoak ere badaude.

ORDUTEGIA:

17:00-20:00 astearte, asteazken, ostegun eta igandeetan.


17:00-21:00 ostiral eta larunbatetan.

RKE eraikina, Santa Eugenia plaza 1, beheko solairua Romo (Gazteleku Guregune).
T. 635 70 65 26

guregunegaztelekua@getxo.eus
Instagram: @getxo_guregune

AHOLKULARITZA PSIKOLOGIKOA

12 - 30 urte
bitarteko gazteak



Aholkularitza psikologikorako zerbitzuaren helburua da Getxoko gazteria laguntzea eta baliabide batzuk eskaintzea, bizitzen egon daitezkeen hainbat egoera errazago kudeatu ditzaten.

Hau ez da gune terapeutikoa, entzuteko eta doako aholkularitza emateko gunea baizik.

Gehienez ere 50 minutuko 4 saio eman ahal izango dizkizugu, eta orientatzen saiatuko gara zure baliabide pertsonalak mugiaraziz edo zerbitzu espezializatuen berri emanez zure kezkek konpontzen laguntzeko.

Saioa online edo aurrez aurre izan daiteke.

Artatuko da: Urgull Kalea 4, 3. solairua, Algorta (Gauegun Gaztelekua)
RKE eraikina, Santa Eugenia plaza 1, beheko solairua

Hitzordua eskatzeko telefonoa:
685737399

E-maila:
aholkularitzapsikologikoa@getxo.eus

PREST!

ORIENTAZIO SOZIOLABORAL ETA JURIDIKOKO ZERBITZUA

16 - 30 urte bitarteko gazteak

Orientazio soziolaboral eta juridikoko doako zerbitzua. Arazo txikiak konpontzeko eta kasurik konplexuenetan zerbitzu espezializatuetara bideratzeko zerbitzua da.

Zerbitzua erabat konfidentziala izango da.

Batez ere, honako gai hauekin zerikusia duten oinarrizko gaiei erantzungo zaie:


- Etxebizitza (alokairu-kontratuak, fidantzak...)

- Lan-kontratua (kontratuak, langileen eskubideak...)

- Fiskalitatea eta zergak (PFEZ, jarduera ekonomikoak...)

- Ekintzailtza (forma juridikoak, nola hasi zure jarduera, oinarrizko izapideak...)

Bertara sartzeko, mezu elektronikoko bat bidali behar da prest@getxo.eus helbidera.

Adierazi harremanetarako datuak, kontsultaren deskribapen zehatza eta erantzuna zein bidetatik jaso nahi den:  688 746 741, e-maila, bideokonferentzia, WhatsApp edo aurrez aurre.


UDALEKUAK

UDAKO HIRI-KOLONIAK



Uztailean
Apiriletik aurrera, informazio gehiago.

Informazioa Gaztebulegoan:
94 466 0353 / 688 88 09 85



GAZTELONJAK

Lonjen programaren helburu nagusia da bizikidetza ona sustatzea lonjen erabiltzaileen eta bizilagunen artean, baita espazio horietan gutxieneko segurtasun-baldintzak bermatzea ere.

Interesa duen edonorentzat: lonjen erabiltzaileak, jabeak edo auzotarrak.


Informazio gehiago:
638 32 20 65
gaztelonjak@getxo.eus



GOOGAZ

Millennial eta Z belaunaldiok gure etorkizuna diseinatzeko gai izan nahi dugu, eta GOOGAZ sortu da tresnak emateko helburuaz. Aldaketa-eragileak sortu nahi ditu.

Hau Bizkaiko gazteei proiektuak garatzeko, gidaritza hartzeko eta konponbideak bilatzeko deia da. GAZTEENGANDIK GAZTEENTZAT. GOOGAZ 2017an sortu zen mugimendua da. Ordu-tik, edizio bakoitzean gazteekin erronka sozial bat landu da, GIHren (Garapen Iraunkorreko Helburuak) agendarekin zerikusia duena.



EUSKARA ZERBITZUA

Bertso eta kantu ikastaroak egiten ditugu ikastetxeetan, kultur produktuen katalogoaren berri ematen dugu, ikastetxeentzat bisita gidatuak antolatzen ditugu herriko toponimia ezagutzeko eta "Nahi dudalako" kanpainaren laguntzaileak gara (euskara erduetan matrikulatzeko kanpainak). Gainera, honako zerbitzu hauek ditugu:

- **Beharsarea:** lana/langile euskaldunak bilatzeko web-orria
- **Hazi eta Hezi:** gazteriarentzako hezkuntza eskaintza, eskola orduz kanpo
- **www.Gurot.eus** online jokoa gazteentzat

EGIZU eta BIZARRA LEPOAN elkarteekin elkarlanean dihardugu. Biek gazteentzako literatura saioak, udalekuak, irteerak... antolatzen dituzte.

EUSKARABENTURA bultzatzen dugu: uztailean egiten den espedizioa, amaiera Getxon duena eta Euskal Herriko gazteriari gure herria ezagutzera emateko helburu duena.

Non dago?
Etxe Sorgindua. Basagoiti
etorbidea 20. 48991 (Getxo)

Informazio gehiago:
944 660 010 / 944 660 011
euskara@getxo.eus

Webgunea:
www.getxo.eus/es/euskara/home-euskera

BERDINTASUN ZERBITZUA

Emakumeentzako jabekuntza-eskola: Getxoko Emakumeentzako Jabekuntza Eskola sare-proiektua da, eta, horren bidez, emakumeen ahalduntzea sustatu nahi dugu, eta haien parte-hartze politikoa eta soziala bultzatu, gizarte bidezkoagoa eta anitzagoa sortzeko.

Sexu-informaziorako bulegoa: Getxoko Informazio eta Aholkularitza Sexologikorako Bulegoak gai sexualei buruzko mota guztietako kontsultei erantzuten die. Zalantzek, aurreiritziek edo, besterik gabe, informaziorik ezak zailtasunak sortzen dituzte norberaren sexualitatea eraikitzeke (zalantzak gorputzari, identitateari, desioari, sexu-joerari... buruz) edo pertsonen arteko harremanetan (asegabetasuna, ulertezintasuna, plazerrik eza, komunikazio txarra...).

Martikoena kalea 16
Telefonoa: 944 660 137
E-maila: sexuinfo@getxo.eus
Ordutegia: astearteetan
17:00-20:00 aldez aurretiko
hitzordua

Baliabideen gida emakumeen aurkako indarkeria matxistaren egoeretarako:
<https://www.getxo.eus/es/cohesion-social/home-igualdad>

Non dago?:
Los Fueros 8, 48991 (Getxo)

Informazio gehiago:
944 660 136
berdintasuna@getxo.eus

Webgunea:
www.getxo.eus/es/cohesion-social/home-igualdad

MUSIKA ESKOLA

Ikasturte formatuan, Musika Eskolan espezialitate instrumental, musika-talde eta musika estilo hauek ikas ditzakezu:

Espezialitateak:

- Zeharkako txirula, oboea, klarineta, tronpa, tronpeta, tronboia, tuba, perkusioa, biolina, biola, biolontxelo, kontrabaxua, gitarra, gitarra elektrikoa, baxu elektrikoa, pianoa, ahots-teknika, akordeoia, trikitixa, txalaparta, txistua, alboka, perkusio tradizionala eta musikoterapia.

Musika-taldeak:

- Orkestra, banda, konboak, sustrai tradizionaleko fanfarreak, gitarren taldea, abesbatzak eta ganbera-taldeak.

Estiloak:

- Klasikoa, sustrai tradizionaleko musika eta musika modernoa-jazza

Matrikula berrietan izena emateko epe ofiziala maiatzaren 15etik 31ra bitartekoa izaten da. Epez kanpo ere jasotzen ditugu eskararak eta, plazak sortzen diren heinean, ikasturtean zehar sartzeko aukera ematen diegu.



Non dago?

Las Mercedes 6, (Areeta) - Basagoiti etorbidea 77, (Algorta)

Informazio gehiagorako:
944 646 011 / 944 646 022
aisasi@getxo.eus

Webgunea:
www.getxo.eus/es/musika-eskola/home-musika-eskola

KULTUR ETXEA

Haur eta gazteentzako areto bereziak, bertan adin horiei eskainitako liburuak, filmak eta musika mailegu-zerbitzuan, 15 urtera arte. Kontsultarako ordenagailuak eta Interneterako sarbidea ere baditugu.

Eskola-bisitak: hitzartutako bisiten eskaintza, oro har, ikastetxeei zuzenduak, ikasle-taldeentzat; horietan azaltzen zaizkie liburute-giaren funtzionamendua eta erabilera, erabil ditzaketen baliabideak...

Ikasleen kanpainak: azterketa sasoian (urtarrila, maiatza eta ekaina) ikasgelak irekitzea ordutegi berezietan.

Ipuinaren Ordua: haurrentzako ipuin-kontalarien hileko programazio finkoa, saioak euskaraz eta gaztelaniaz txandakatuz. Hil bakoitzaren hirugarren ostegunean egiten da. Horrez gain, ipuin kontalarien ingelesezko beste saio berezi batzuk programatzen ditugu.

Komiki Aretoa: Komiki eta Manga Azoka. Areetako metro geltokiko karpan, 80 stand baino gehiago, tailerrak, zinema, mahai-inguruak, erakusketak eta komikien salmenta.

Ordutegia: astelehenetik ostiralera (08:30etik 14:30era eta 16:00etatik 20:30era) Larunbatetan (09:15etik 13:00etara)

Non dago?

Villamonte 8, (Getxo)

Informazio gehiago:
944 914 080 / 944 319 280
info@getxokultura.com

Web:
<https://www.getxo.eus/es/cultura/home-cultura>

GETXO KIROLAK

Getxo Kirolak Getxoko Udalaren erakundea da, eta udal-kirol-degiak – Fadura, Gobela eta Andra Mari – kudeatzen ditu, baita amateurraren, eskola-kirolaren eta kirol federatuaren esparruan garatzen diren jarduerak ere.

Gainera, adin guztientzako ikastaro- eta jarduera-eskaintza zabalak eskaintzen du. Informazio guztia bere web orrian (getxokirolak.eus) edo Fadura edo Gobelaren bulegoetan kontsulta daiteke

Non dago?

Fadura: Makaleta etorbidea z/g

Gobela: Gobela: Luis López Osés z/g

Andra Mari: Zientoetxe, z/g

Informazio gehiago:

infogetxokirolak@getxo.eus

Fadura: 944 308 070 / 944 308 069

Gobela: 944 045 151

Web:

www.getxo.eus/es/kirolak/home-getxo-kirolak



IMMIGRAZIO ETA KULTU- RARTEKOTASUN ZERBITZUA

1. Herritar guztien gizarteratzea sustatzea, eragile guztien inbertsioaren eta parte-hartzearen eta gizarte-berrikuntzaren bidez
2. Elkartasuna sustatzea eta kultura-aniztasuna abantaila gisa onartzea
3. Balioetan sentsibilizatzea, hiri hezitzailearen ardatz gisa, eta, horren barruan, garatzea belaunaldien arteko eta kulturen arteko bizikidetzarako agertokiak sortzen dituzten programak
4. Partaidetza-prozesuen eredia bultzatzea eta, horren barruan, Udalaren proiektu estrategikoetan foroak eta lantaldeak sortzea bultzatzea, herritarren parte-hartze zuzena bermatzeko.

Zerbitzu horren barruan, honako hauek ditugu:

HARRERA-BULEGOA

Getxoko Migrazioei Harrera Egiteko eta Arreta Emateko Bulegoa zerbitzu publikoa da, Getxoko udalerrian migratutako pertsonei orientazioa, laguntza eta deribazioa emateko.

Non dago?

Chavarri-Zuazo plaza z/g.

Informazio gehiago: oficinaacogida@getxo.eus

944 660 152 / 747 424 287

Web: getxo.eus/cohesion-social

GETXO ANTIRAZISTA ESTRATEGIA! KONTUZ ZURRUMURRUEKIN!

Gizartea sentsibilizatzeko eta herritarrek parte hartzeko estrategia da, eta bideratuta dago arrazismoa, xenofobia eta diskriminazioa prebenitzera, bizikidetzaren hobetzera eta kultura-aniztasunaren potentziala aprobetxatzera, herritarren pertzepzioak, jarrerak eta jokabideak oro har aldatuz.

[Informazio-diptikoa pdf formatuan.](#)

EKONOMIA SUSTAPENA ARLOA

EKINTZAILEENTZAKO ETA ENPRESENTZAKO ZERBITZUAK ETA PROGRAMAK:

START INNOVA: ikus-entzunezko edukien eta e-learning dinamiken bidez gazteen artean jokabide ekintzaileak eraikitzen laguntzeko sortutako programa da. Batxilergo eta Lanbide Heziketako ikasleei zuzendua, prestakuntza-zentroekin lankidetzan.

WANTED: Gazteek bultzatutako proiektuei laguntzea (finantzaketa, aholkularitza profesionaleko zerbitzuak, proiektu bakoitzerako prestakuntza espezifikoak, laguntza-zerbitzua...) Azken batean, proiektuak behar bezala gauzatzeko interesgarritzat jotzen diren baliabide eta zerbitzu guztiak.

ZURE ENPRESA SORTZEKO AHOHKULARITZA INTEGRALA: Laguntzen dizugu ideia aztertzen, enpresa-plana garatzen eta abian jartzen.

LEHIAKORTASUNA HOBETZEA:

- Enpresa-kudeaketarako aholkularitza: estrategia komertziala, ekonomiko-finantzariora, teknologikoa eta legala, erakusleihen-apainketa, merchandising-a...

- Proiektuak eta programak: eraldaketa digitala, berrikuntza, enpresa-transmisioa, elikadura iraunkorra...

PRESTAKUNTZA ETA ENPRESA-TOPAKETAK

HUBak ETA LAN EGITEKO ESPAZIOAK: "Getxo Itsas Hub" itsasoaren eta irristatzearen industriarako, eta "Getxo Sormen Hub" sormen- eta kultura-sektorerako ekintzailetza-zentroak, Getxo Coworking, bilera-aretoak...

MERKATARITZA-GUNEA DINAMIZATZEKO PROGRAMAK ETA TURISMO-ESKAIN-TZA DINAMIZATZEKO JARDUERAK: GetxoAktibaTU, Getxo Bono, Saldoen Merkatua, Getxo gozatzeko planak...

LAGUNTZAK ETA DIRULAGUNTZAK

Non dago?
Ogoño kalea 1,
(Areeta)

Informazio gehiago:
944 660140 getxolan@getxo.eus

Web:
www.getxo.eus/getxolan